



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2018/2019 denboraldia

8 ZK.DUN ZIRKULARRA

KADETEEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Kadeteen Euskal Liga antolatuko du 2018/2019 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko duten klubak

Antiguo´ko K.E.; Athletic C.; Betoño C.D.; Danok Bat Club.; Deportivo Alavés; Deusto S.D.; Eibar S.D.; Gernika C.S.D.; Getxo C.D.; Kostkas K.E.; Lakua de Vitoria Gasteiz C.D.F.; Real Sociedad de Fútbol; Romo F.C.; Santutxu F.C.; Tolosa C.F. eta Vasconia C.D.

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan, hogeita hamar jardunalditan, guztira egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

3. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 9, 16, 23 eta 30; urriaren 7, 14, 21 eta 28; azaroaren 4, 11, 18 eta 25; abenduaren 2, 9 eta 16.

Bigarren itzulia: abenduaren 23; urtarrilaren 6, 13, 20 eta 27; otsailaren 3, 10 eta 17; martxoaren 3, 10, 17, 24 eta 31; apirilaren 7, eta 14.

Partidak larunbatetara aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan be ordutegi lerro bat jarri dela, beraz partidak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etarako bitartean hasiko dira, logikoki lehiatzen duten klubuen arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Sailkapen ondorioak

Sailkapenean 14, 15 eta 16. amaituriko taldeak jaitsiko dira lurralde ligetara.

Orobat, lurralde ligan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea eta bigarrena ere. Igoera fasean liga horietako bigarren amaiturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

5. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez zazpi balizko ordezko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

6. Entrenatzaileak

Tituludun entrenatzailea izateko derrigortasuna gogoratzen da, gutxienez 1.maila edo oinarritzko entrenatzaile diploma / UEFA B lizentzia.

Ezinbesteko arrazoia ez bada, entrenatzailea bere taldeak edozein txapelketetan parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.

7. Delegatuak

Delegatu bat gutxienez edukitzeko derrigortasuna gogoratzen da, bere lizentzia federatiboa tramitatuta.

Ezinbesteko arrazoia ez bada, delegatua bere taldeak edozein txapelketetan parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

8. Arbitroak

Partida jokatzeko den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Batik bat Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

9. Diziplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Gorajotze Batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2018eko abuztuaren 6an.

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General